

—¡Ahh! ¿Y no había más ciclistas por entonces?
—¡Claro que los había, y muy buenos! En plan profesional estaba Luis Otaño, y como aficionado que empezaba a destacar Txomin Perurena, pero esos tenían menos importancia que la que tuvieron en su día Iñacito Albisu, el repartidor de Fermoselle y el de «La Aceitunera».

—¿También salían en carreras?

—No, esos entre los tres repartían el aperitivo.

—No entiendo...

—¡Sí, hombre! Uno repartía pan, otro vino y el tercero aceitunas, que por cierto, era el más chulo, porque las repartía en triciclo, mientras que Albisu y el de Fermoselle, lo hacían con la bici tirando de un remolque.

—Claro, en aquellos tiempos todo se repartiría por el mismo sistema, bicis, triciclos, carritos manuales...

—¡No señor, equivocado del todo! Estaba también Tasio, el de la panadería Villarreal, que aquél lo hacía con un percherón gigantesco, y que...

—¡No, no! Lo que yo quiero decir es que entonces no había camionetas de reparto.

—Otra vez equivocado amigo. El único establecimiento que lucía en su fachada el cartel de: «Suministrador de buques de altura, bajura y mercantes del Puerto de Pasajes»; o sea la tienda de Doval, donde vendían «bacalado», tenía una camioneta Citroën, por entonces, ya vieja, pero con una bocina de lo más original.

—Bueno, pero ¿tú de qué año me estás hablando?

—¡Y yo qué sé! Con esto de los recuerdos, ya sabes lo que pasa, uno empieza hablando de la bici de Apellaniz y termina comprando un polo de pela en La Perla o unas pastas en la plaza, en el puesto de Sorondo...

—O un «chester» en el carro de la Plácida...

—¡Hombre, ahora que hablas de la Plácida! Siempre me acordaré de un domingo de invierno, nevando, en el que fui a comprar algo al carro. Plácida, estaba quitando la nieve con una pala, de los alrededores de «su establecimiento» y un joven guardia municipal, que ahora es cabo o sargento, y al que llamábamos «el torero» por su arte dirigiendo el tráfico en el cruce del puente del «Aurrera», le dijo, con mucha guasa:

«¡Ande Plácida, no sea usted mala, y ya que tiene pala, limpie también la zona de sus compañeras» Refiriéndose a los carros restantes. La viva contestación de Plácida, no se hizo esperar:

«¡Ay no, señor guardia. Yo sólo quito lo que me perjudica».

—Qué recuerdos verdad...

—Será que nos estamos haciendo viejos.

—¿Con cuarenta años? ¡Quita, por favor! Viejos... ¡De qué!

—A propósito, ¿tú qué tal funcionas?

—¿De eso...? ¡Bieennn! ¡Sólo son cuarenta años!

—Pues entonces... ¡Que nos quiteñ lo bailado!



SIMONE DE BEAUVOIR

MARIASUN LANDA

Joan den hilean, apirilak 14ean, hil zen Parisen Simone de Beauvoir, 78 urte zituelarik.

Idazle, borrokalari eta pentsalari frantses honi buruz gauza asko idatz daitezke mende hontako kulturaren munduko izen handienetarikoa bat izan baita. Baina gaur, bere obraren beste alderdi batzuk baztertuz, Simone de Beauvoirrek feminismoan izan duen eraginari ekingo diogu, bere idazlan famatua, «Bigarren sexua», komentatuz, oraindik emakumeen egoera eta izaera aztertze inoiz idatzi den obrarik garrantzitsuen iruditzen bait zaigu.

«BIGARREN SEXUA»

Feminismoaren historia egunen batean idazten bada, 1949.eko urtea ez ahazteko data izango da. Urte hartan, Simone de Beauvoir, 40 urte, idazlea, nobelagilea, existentsialismo frantsesaren pertsonai ezaguna, emakume askoren bitartean garrantzi handikoa izango zen liburua argitaratu bait zuen: «Bigarren sexua».

Eta bitxieta zera da: emakume hau ez zela feminista inolaz ere.

Garai haietan, gizonezkoen artean onartu eta onestaturako intelektual tipikoa zen Simone. Feminismoa beretzat errebin-dikazio burges sorta bat baino ez zen. Horregatik liburu hura ustekabezkoa izan zen nolabait. Bere burutaz zerbait idatzi nahian, bere emakume izaeran sakondu nahi izan zuen eta hortik sortu zen liburuaren ideia.

Bi urte kosta zitzaion eta ustekabeko bidetatik eraman zuen: «Bitxia eta estimulantea zen—dio Simone de Beauvoirrek bere Memoriatan—bapatean, 40 urterekin, ordurarte existentsiarik ez zuela zirudien eta begien bistan zegoen munduaren alderdi bat aurkitzea...»

Liburua erroskilen antzera salduko zen eta berehala irtxiko ziren erreakzioak. Bai eskubiarenak, bai ezkerrenak.

LIBURU EZTABAI DATUA

Batzuentzat, liburua moralgabera eta lotsagarria zen, amatasun sena ukatzeaz gain sexu askatasuna aldarrikatzea leporatzen bait zioten. Besteentzat, «Bigarren sexua» gaizki planteatzen zuen emakumearen arazoa. Hau sasi prolema bat zen, iraultza ondorenean emakumeak arazo guzti hauek konponduta aurkituko bait zituen.

Baina gehientsuenetan gertatzen den bezala, kritika gehienak liburuari berari zuzenduak ez ziren, berari idatzi zuen emakumeari baizik. Simone de Beauvoirrek era guztietako irainak jaso zituen: frigida, neurotika, inbidiosaz gain, lizun, ninfomana eta abar luze bat. Eta ez beti ezezagunengandik, ondo ezagunak zirenen aldetik ere bai, esate baterako Mauriac-engandik.

«Bigarren sexua» garraxi urratua izan balitz, arima zauritu baten oihua... paternalkeriaz onartua zatekeen agian. Liburua, ordea, tankera objetibo, inpartziala, era lasaian idatzia zegoen eta honek, gezurra badirudi ere, areagotu egin zuen bere inpaktua. Era batera edo bestera, «Bigarren sexua» emakume frankorentzat garrantziko aurrerapausua suponitu zuen, eztabaida ugari sortaraziz eta izpirituak astinduz. Gaur egun ere, honek jarraitzen du feminismo modernoaren liburu teoriko handiena izaten, eta oraindik ere sarritan erreferitu beharko gatzazkio ez baitu galdu ez interesik, ez gaurkotasunik. Zoritxarrez!

EMAKUMEA EZ DA EMAKUME JAIOTZEN, BILAKATZEN DA BAIZIK

Simone de Beauvoirrek itxuraz oso erraza dirudien galdera bat eginaz ematen dio hasera liburuari: «Zer da emakume bat?» Aski al dira ezaugarri fisiko batzu, soineko bolanteduna edo belarritakoak eme bat emakume bilakatzen? Zein da emetasun edo «feminitate» misterioitsu eta hauskor hori?...

Biologiak eskeintzen dituen datuak ez dira sexu arteko desberdintasuna gizartean justifikatzeko haina. Psikoanalisari, materialismo historikoari Simone de Beauvoirrek egiten dizkien kritikak jasan ezinak zaizkie. Bestalde, Historiari begira, emakumeak beti etxeko mundura mugatuak agertu dira, zientzi, kultur, korronte eta erabaki garrantzitsuetatik kanpo.

Beraz, emakumearen egoera ez da naturak sortu duen feminitate aldagaitz horren ondorioa, emakumeak jasan egiten duen egoera zapaltzaile baten ondorioa baizik. Emakume ez da emakume jaiotzen, bilakatzen da baizik...

Ideia nagusi hontatik abiatuz, Simone de Beauvoirrek era harrigarrian aztertzen du nola haurtzaroen eta adoleszentzian

«feminitate» hori hazitzen den. Nola ezkontzan eta amatasunean burutzen den. Nola emakumeen egoera ondo mamitutako prozesu ideologiko baten ondorioa den.

BIKTIMA ETA KONPLIZEA

Baina ideologia patriarkal honen ondorio nagusia emakumearen konplizitatea lortzea izan da. Bestela, ulertezina litzateke ideologia zapaltzaile honen iraupena. Emakumea biktima izatek konplize izatera bihurtzen bait da, adibidez, berarekin egin zuten berbera bere alabekin eginez. Eta zirkulu gaiztoa finkatzen da.

Konplizitatea, sarritan, beste mailatan adierazten da... Bere eskuetan bizitza hartzeko ezintasunez, emakumeak maiz samintasanren ondorioz sortutako jarrera eta portaera atzerakoiak hartzen ditu. Edo sasi irteerak, edo ihesbideak edo aitzakiak. Batzuentzat erlijioa, besteentzat gainekako nartzizismoa, edo masokismo estalia... Sekula aseezinak, psikiatra eta sendagileen bezero zintzoa, merkatalditako lekuko leialak edo fotonobela erromantikoen irakurle sutsuak izango dira.

Eta irtenbideak?... Lehenengoa: OGI BIDEA, independentzia ekonomikoa lortzea. Hau da Simone de Beauvoirrentzat ezinbestez bete beharreko baldintza, bizitza bestearen begietatik ikusten jarraitu nahi ez duen emakumearentzat. Bigarrena: Gizartearen erantzunkizunetan biziki parte hartzea.

FEMINISTA BIHURTU ARTE

Esan dugun bezala, Simone de Beauvoir ez zen feminista «Bigarren sexua» idatzi zuenean. Liburu honek emakumearen izaera eta egoera sakonki aztertzen badu ere, ez du emakumeen borrokarako taktikarik eskeintzen.

Hala ere, bitxia izan zen Simone de Beauvoirren eboluzioa, azken urteetan feminista bihurtu bait zen. Zergatik aldaketa hau?...

Alde batetik, Errusiako eta Txinako iraultzek emakume arazoekiko suposatu zuten frakasoengatik, bestalde, 1968.eko Maiatzaz geroztik emakumearen askatasuna eta sozialismoaren alde mugimendu feminista iraultzaile bat sortu zelako.

«Feminista naiz-zioen 1972 Nouvel Observateur-eko elkarrizketa batean-konturatu naizelako, denok nahi dugun sozialismoa iritxi aurretik, beharrezkoa dela emakumearen egoera zehatzagotik borrokatzea. Eta bestalde, konturatu naizelako, baita ere, herrialde sozialistetan berdintasuna ez dela lortua izan. Beharrezkoa da, beraz, emakumeek etorkizuna eskuartean har dezaten. Horregatik, beraz, aurkitzen naiz egun Emakumeen Askatasun Mugimenduari lotua».